

GRADU BIKOITZA: INGENIARITZA ZIBILA + ARKITEKTURA TEKNIKOA. HIRI BIZIGARRIAGOAK ERAIKITZEN

- **Jakintza adarra:** Ingeniaritza eta Arkitektura
- **Campus:** Gipuzkoa
- **Ikastegi antolatzailea:** Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Donostia)
- **Gradua/k:**
 - Ingeniaritza Zibila
 - Arkitektura Teknikoa
- **Garapen-lekua (helbidea):** Europa Plaza 1, Donostia

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Ohartu gara Batxilergoko eta Goi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleek ez dituztela ezagutzen eraikuntzaren arloko gradutako ikasketen edukiak.

Horregatik, beharrezkoa ikusten dugu ikasleei Ingeniaritza Zibileko eta Arkitektura Teknikoko Gradu Bikoitzaren titulua eta bi lanbideen gaitasunak azaltzea, ikasketa horiekiko interesa sustatuz. Horretaz gain, ikasketa horiek egungo gizartean duten garrantzia eta beren ingurune profesionalaren ezaugarriak azpimarratuko dira.

Horrela, proiektu honen helburuak honako hauek dira:

- Titulazioaren, lanbideen eta lan-irteeren ezaugarriak ezagutaraztea.
- Ikasle potentzialak motibatzea eta Batxilergoan edo/eta Goi Mailako Heziketa Zikloetan kalifikazio onak dituzten ikasleak erakartzea.

Gradu Bikoitzeko jardunaldi praktikoetan Ingeniaritza Zibileko Graduarekin eta Arkitektura Teknikoko Graduarekin lotutako jarduerak egiten dira. Beraz, ikasle batek Gradu Bikoitzeko jardunaldi praktikoetan izena ematen badu, ez da gomendagarria gradu sinpletara joatea.

2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

- Ingeniaritza Zibila eta Arkitektura Teknikoko Gradu bikoitzeko titulazioa: ikasketa plana eta laborategiak.
- Lanbidea eta lan aukerak.
- Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolak lan-ingurunearekin duen harremana:
 - Profesionalek emandako hitzaldiak.
 - Eraikuntza obratara egindako bisitak.
 - Borondatezko praktikak eta Gradu Amaierako Lana enpresetan.

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

I) Ikasketak:

- Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolaren ezaugarriak eta eskola honek eskainitako ikasketa-plana aurkeztuko zaizkie.
- Lan-ingurunearekin ikasketa hauek daukaten harremana nabarmenduko zaie.
- Master-ikasketak egiteko aukera ere badaukatela azalduko zaie.
- Tituluak dituen lan-aukerak aipatuko zaizkie.

II) Praktikak laborategian:

Laborategiak bisitatuko dira eta bi praktika burutuko dira:

- A: Eredu interaktibo baten bidez egitura-sistemen simulazioa eta bistaratzea;
- B: Ezagutza eta praktika errealitateko bilketa masiboko 3D (TLS) laser scanner azken teknikak erabiliz, eredu arkitektonikoak garatzeko; Eraikuntzako 3D ereduaren analisiaren praktika, modelaketaren softwarearen erabilera ezagutzeko;

III) Expektatiba profesionalak

Elkarrizketa kolektibo bat egingo zaio bi titulazioak lortu dituen ikasle ohi bati.

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordutegia	Plazak
2025-01-23	Euskara	Arratsaldez	15:00 – 17:30	16
2025-01-23	Gaztelania	Arratsaldez	15:00 – 17:30	16
